

## ❖ EGURALDIA

**Haize oso zakarra agindu dute biharko eta alerta egoeran dago Hernani**

Hego haizeak zakar joko du bihar eta etzi, eta Udalak abisatu du Hernani alerta egoeran dagoela. Batez ere bihar arratsaldean izango da arrisku handiena, haizeak 120 km/h abiadura harrapatu dezakeelako. Gomendio batzuk eman dizkie Udalak herritarrei: haizeak eraman lezakeen guztia kendu lehio eta balkoietatik; ondo itxi lehio eta ateak; kontuz zuhaitz ondoetan eta obretako andamio inguruetan; babes bila ez joan pareta, hesi edo zuhaitzen ondora; ahal baduzu etxean geratu, eta kotxerik ez hartu; kotxeak garajeetan sartu. Arriskuren bat ikusiz gero, deitu: 943 248 900. ||

## ❖ ZINEA

**'Nine' pelikula gaur**

Bi pelikula emango dituzte asteburu honetan Biterin. *Nine* pelikula izango da gaur, 22:30etan; bihar 19:30 eta 22:30etan; eta igandean 19:30etan. *Lluvia de albondigas*, bihar eta igandean 17:00etan. ||

## ❖ AAM

**Kontzentrazioa gaur Hernanin eta bihar Donostian**

Bi kontzentrazio egingo dituzte asteburu honetan Amnistiaren Aldeko Mugimenduek antolatuta. Gaur, otsailak 26, Gudarien plazan egingo dute, 20:00etan, *Torturatzeko inpunitate* salatua asmotan. Bihar, Donostiako epaitegian izango da kontzentrazioa, 12:00etan. Bertan, euskal preso politikoak egiten ari diren aurrez aurreko bisabis grebari babesa azaldu nahi diete, eta presoak egiten ari diren borrokaren berri herriari zabaldu. ||

## Krisi larrian dauden herritarrei Kutzak dirulaguntzak emango dizkie

Baldintza jakin batzuk betetzen dituzten herritarrei Kutzak 3.000 euro arteko laguntzak emango dizkie. Horretarako, 3 miloi euroko diru-partida onartu du. Banatuz Kontseiluak dei egin die egoera ekonomiko larrian dauden herritarrei, eskatu dezatela laguntza hori.

KUTXAK krisiaren aurkako diru-partida bat onartu du, behar larriena bizi duten herritarrentzat. 3.000 euro arteko laguntzak emango dizkie Kutzak zenbait baldintza betetzen dituzten herritarrei, eta horretarako, Kutxa-Zeharo ofizinetan egin behar da eskaera.

Banatuz Kontseiluak Kronikara bidali duen oharrean, egoera larria bizi duten herritarrei dei egin die, diru laguntza horiek eskatu ditzatela. Banatuz dioenez, diru laguntza onartu zenetik, oso jende gutxi egin du eskaera, «guztira 3 miloi euro onartu dira, laguntza bidez banatzeke, eta oraindik %3 bakarrik banatu da».

«Gipuzkoar behartsuenak, langabezia daudenak, EREa jasaten ari direnak, edo dirupremia larrietan bizi dire-



Eskaerak Kutxa-Zeharo ofizinetan egin behar dira. Ofizina horiek daude: Donostian (Erretereria kalea, 17), Irunen (Jacobo Arbelaitz, 10), Arrasaten (Otalora, 14), Eibarren (Bista Eder, 11), eta Zumarragan (Piedad, 3)

nak, krisiaren aurkako laguntza hau eskatzera animatu nahi ditugu».

**70 bat eskaera onartu dira**

Banatuz dioenez, eskaera oso gutxi izan dira, eta «oraingoz 70 bat lagunek bakarrik jaso dute dirulaguntza. Iaz, Gipuzkoan langabezi-zerrendak osatu zituzten 8.400 langabetu horietatik askok jaso dezakete diru-laguntza hori, baina horretarako eskatu egin behar dute». Kutzari ere eskaria egin dio Banatuzek, informazio hau gehiago zabaldu dezan.

**Pixkanaka bueltatu behar**

Laguntza horiek eskuratzeko baldintza jakin batzuk bete behar dira, eta gehienez 3.000 eurokoak izango dira, pixkanaka bueltatu beharrekoak, ahal izanez gero. ||

## Jose Camacho hernaniarrak ospitalean jarraitzen duela salatu du AAMk

Jose Camacho otsailaren 15ean atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta AAMk salatu duenez, «inkomunikatua egon den bitartean torturatu egin dutelako dago oraindik ospitalean».

AMNISTIAREN Aldeko Mugimenduek salatu du, Jose Camacho hernaniarrak ospitalean jarraitzen duela, joan den otsailaren 17tik. Camacho otsailaren 15ean atxilotu zuen Guardia Zibilak. AAMk prentsa oharrean salatu du, Camacho ez dagoela ospitalean lehendik zituen osasun arazo-

engatik, baizik eta torturatu egin zutelako eta ariketa fisiko latzak eginarazi zizkioteko, inkomunikatuta eduki zuten bitartean. «Guardia Zibilak torturapean, behartuta eginarazi zizkion ariketa fisikoek eraginda dago ospitalean, eta horren eraginak ez ditu oraindik gairatu eta ez diote medi-

kuaren parte eman».

**«Poltsa, askotan egin zioten, arnasik gabe uzteraino»**

AAMk gogorarazi du, Camachok torturak salatu zituela. «Mehatxu ugari jaso zituen, kolpeak ere bai. Presioak, irainak. Poltsa askotan egin zioten, arnasik gabe uzteraino.


Poltsa jarria zuela ariketa fisikoak eginarazi zizkioten. Horren ondorioz, eskubiko hankako atzeko muskulua erabat txikitua dauka. Ariketen ondorioz, zelulak hil zitzaizkion, eta hildako zelulak odolean sartu. Odola infektatua du eta hori gairatu arte ez dute ospitaletik aterako». ||

asteartetik igande eguerdira irekita



### OTSUA-ENEA

Osifaga auzoa  
Tel. 943 55 68 94



*Sator sagardoa berria edatera!*

### LARRE-GAIN

TOLARE SAGARDOTEGIA

- Gauetan: asteartetik larunbatera.
- Eguerdian: ostiraletik igandera.
- Astelehenean itxita.

LARRE-GAIN BASERRIA - EREÑOTZU - HERNANI

943 55 58 46 - 616 28 78 67

**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauze**: **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goizean haizea bizi-bizi ibiliko da, eta nabarmen baretuko du eguerdik aurrera. Eguraldi nahasia, eguzkia eta ostarteak. Hoztu egingo du. Min.8° / Max.14°

**BIHAR** Haizetea izango dugu bihar. Hegoak joko du oso gogor; aldika 120 km/h-ko indarrarekin. Lainoak nagusi eta tanta batzuk bota litzake. Tenperatura gora. Min.9° / Max.20° (euskaime)

## IES HERNANI INSTITUTUA

# TDTa debalde jarriko die Udalak zenbait herritarri

Lurreko Telebista Digitala laster etxe guztietan eduki beharko da, telebista ikusi ahal izateko. Behar jakin batzuk dituztenei udalak debalde jarriko die.

HERNANIKO Udal Ongintza Patronatuak debalde jarriko die LTDa (TDT) Hernaniko herritar batzuei, baldintza jakin batzuk betetzen badituzte.

Laster, etxe guztiek beharko dute LTD antena, telebista ikusi ahal izateko. Horretarako, seinale berria harapatzeko prestatu beharko dira telebistak.

### Baldintza batzuk betetzen dituztenei

Ongintzak dohainik jarriko die LTDa, hiru baldintza hauek betetzen dituztenei:

1) Mendekotasuna izatea, II edo III graduaren eta 65 urte



Laster LTD antena beharko da.

baino gehiago izatea.

2) Entzuteko edo ikusteko ezintasuna izatea, %33tik gorakoa.

3) 80 urte baino gehiago izan eta bakarrik bizitza edo beste norbaitekin bizitzeko gero, honek ere 80 urte baino gehiago izatea.

### Tramiteak Ongintzan

Baldintza horiek betetzen dituztenek, dokumentazio bat aurkeztu behar dute Ongintzan:

NAN agiria konpultsatua (Udaletxean konpultsatzen dute).

Informazio gehiago nahi duenak deitu: 943 557 854. ||

## Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

**ZABORRA edo LEHENGAIJA** Afirmazioa batzuekin abiatzen gara: Zaborra arazo bihurtu zaigu; EZIN DUGU JARRAITU KONTAMINATZEN ORAIN ARTE BEZALA; birziklatzea beharrezkoa da, zabor gutxiago egitea eta hondakinak tratatzeko modua aldatzea.

Batzuk erraustegiaren alde daude; baina erraustegia jarri nahi izan duten herriek ez dute nahi (Urnietan, Errenteria, Oiarzun, eta orain Usurbil, Lasarte-Oria...). Urruti daukagunean ez zaigu hainbeste axola, axola ez zaigun bezala Hondakin Nuklearrak Afrikako leizeetara eramatea.

Atez Atekoak bildurra sartu digu, hondakinak bereiztera behartu gaitu, isunak iragarri dira boikota egiten dutenentzat, usainak aipatu dira, askatasuna... birziklatzea ia ez dela borondate kontua izango, obligazio bihurtuko dela.

Imajinatzen al dituzue gure herriak, eskubitik gidatu be-

harko ez bagenu, bakoitzak nahi duen tokian aparkatuko balu, udaltzaingorik ez bagenu, edo isunik...

Atez Atekoa aipatu zutenen kezka sortu zitzaidan. Udalak deitutako bileretara joan nintzen, eta gauza batzuk argiago ikusi nituen. Hamaika-bat taldeak hitzaldia antolatu zuen eta Usurbilgo pertsona bat ekarri zuen, Atez Atekoarekin kritikoa zena. Neure bildurak hitzaldi hark argituko zizkidala espero nuen (usainak, mugak...). Hala ere, Usurbilgo herritarrek, azaldu zuten bakarria izan zen nola boikotatu sistema, eta nola jarri traba legalak.

Egun batzuk geroago, Usurbilera joan ginen bi lagun, orgainikoa bildu zuten egun batean; harridura geratu nintzen, herri garbi bat aurkitu nuelako, usairik gabea, eta zabor poltsaren bat edo beste kalean zeukana, tokatzen ez zen egunean aterea (pentsatu

nuen boikota egin nahi zuen norbaitena izango zela).

Egunero gu manipulatu saiatzen dira Atez Atekoaren kontrakoak, ezagutzen ez dugunari diogun beldurra aprobetxatuta. Usurbilgo EAJko zinegotzia Atez Atekoaren aldekoa da, eta bera da adibide nagusia, sistema baliagarria dela jakiteko.

Ustel usaina hartzen diot nik, errastegia bai edo ez erabakitzea ukatzen digutenak gure etxe aurreko zintzilarioei dioten kezkarri.

Otsailaren 27 eta 28an Usurbilek erreferenduma egingo du, eta sistema ezagutzen dutenek aldeko botoa ematen badiote, erantzun horrek gauza asko argituko ditu, eta erraustegia ez da beharrezkoa izango. Ezberdin pentsatzea normala da, norberak bera defendatzea logikoa, baina besteen lana boikotatzea ez da justua, ez zuzena, eta bide okerrera garamazki.

Mikel Jaka Sasieta

## IES HERNANI INSTITUTUA

### Plazak libre, kurtso batzuetan

IES Hernani Institutuan plazak libre daude oraindik, uztaile arteko kurtso batzuetan: Metrologia; Automatismoak; eta Mekanizatu teknika. Deitu: 943 55 11 88 eta 943 55 19 58. Jesus Ezkerro. ||

## GALDUTAKOAK

### Urrezko eraztuna galdu da

Astehenean urrezko eraztuna galdu zen, Hernanin, Latsunbetik Kale Nagusira bidean. Eraztun zaharra da, brillante txikiak dituen. Deitu: 943 552 358. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Pisua salgai Karabelen.** 60m<sup>2</sup>, 2 logela, sala, sukaldia eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

**Pianoa salgai.** Yamaha U1F modelo, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

**ETXKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.

**Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebra, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Atzietan 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

**Zure arazo eta blokeo pertsonalekin** lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach... (Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

# 10. urteurrena HERNANIKO KRONIKA

**Martxoaren 12an  
Ilunabarreko 20:00etan  
Larre-Gain Sagardotegian**



**IRAILIO PANTTALONE**

**AFARIA (sagardotegiko menua)  
BERTSOLARIAK  
ESNE BELTZA-ren ESNE ZOPAK**

**TXARTELAK 35'00€**

SALGAI ARALAR TABERNAN, OINDI TABERNAN,  
KIXKAL-en, LARRE-GAIN SAGARDOTEGIAN eta  
HERNANIKO KRONIKAN (Larramendi 11)

**pelisimo**  
FOTODEPILAZIO AURRERATUA

Ebatzi ezazu zure gorputzeko edozein ataleko ilea fotodepilazio berritzaile sistema honekin. Sistema berria, erraza, minik gabekoa eta eraginkorra.

Bizkarra iztondoak hanka 1/2 besoa axilak

**tarifa bakarra: 30€**

**UNISEX**

- Aurpegi fotogaztetzea  
- Aknearen tratamendua  
- Aurpegiko orbanen ezabaketa

94 333 18 10

Kardaberaz kalea, 35  
www.pelisimo.com

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422  
**HERNANI**

**astartetik igande eguerdira irekita**

**OTSUA-ENEA**

Osiñaga auzoa  
Tel. 943 55 68 94